

## Kiwiak eta psikologia

KIWIAK ERE lorea du fruituaren ama. Eta aita. Dioikoa baita kiwia, espezie berean landare batzuk erabat arrak eta beste batzuk emeak dira. Biek zabaltzen dute lorea. Arrarenak polena zabaldu eta kitto lanak. Emearena ernalduko du polenak eta udazkenara arte fruitua hazi eta ontzen nahikoa lan izango du. Berriz ere lau aldiz handiagoa egingo da arra!

Aita eta ama bezala izeba-osaba ugari du kiwiak. Bere jatorrizko lurrian zaindu zuten txinatarrak. Zeelanda Berrira eraman zuen emakumea. Fruitu haien hazietatik sortutako landareak hautatuz hobekuntza burutu duten makina bat nekazari eta agronomo.

2010eko datuen arabera, Txina da munduko kiwi ekoizle nagusia, 467 milioi kilo, eta dena bertan baliatzen dute. Mundu mailako kiwi merkatua Zespri enpresa zeelanderitarraren ukabil dago. Enpresa hori hango fruitugile gehien artean sortua da, 2.700dik gora. Tasmaniako itsasoko estatua hirugarren ekoizlea da (370) baina urte osoan fruitua izateko Italian –munduko bigarren

ekoizlea, 442– kiwidi ugari du.

Txinatik eraman zuten uharte haietara eta handik zabaldu da. Han hegan egiten ez duen txoritxo bat bada, maorieraz kiwi izena duena; bertakoen ezizena ere horixe da. Txoritxoaren antza duen fruitua beraiek hedatu zuten, zein izen egokiagoa?

*Actinidia deliciosa*, kiwi berdeak izan zuen harrerak ekoizpena eta ikerketa sustatu zituen. Txinako Yang Taoa (*Actinidia chinensis*) oinarri, 1977an abiatutako gurutzatze eta hautaketa lan bat 1992an burutu zen: kiwi horia edo urrezko kiwia sortu zuten. Mamia horia du eta berdearen aldean gozo-gozoa da. 2000. urtean iritsi ziren lehenak Europara.

Kiwiak ia inongo gaitzak jotzen ez zituen sasizat genituen. Baina monolaborantzak eta etekin gose asezinak ekarri die *nokiero*-ko botika. Berdeak ederki eusten dio, baina horia gorriak ikusten ari da.



LUC VIATOUR/WWW.LUCNIX.BE-CC BY SA

*Pseudomonas syringae pv actinidiae* edo PSA deituriko bakterioak lur jota ditu kiwigileak. Kiwidi gazteak erasotzen ditu. Hektarea bat kiwi jartzeko inbertsioa 30.000 euro ingurukoa da eta bosgarren urtean, oparo ematen hasi behar duenean, jo eta hiltzen du. Eta Italian eta Zeelanda Berrian nekazariak lur jota. Eta etsiak har ditzan aurretik, Zespri enpresak gaitzaren aurkako estrategia bihurria abiarazi du: nekazariak tratatzeko psikologo talde bat osatu du. ■



## Helikoptero politak

Umetan astigarra (*Acer* sp) zer zen azkar asko ikasi genuen. Gereziondoaren gereziak bezainbat erakartzen zuen gure arreta astigarren fruituak. Besoa luzatu eta ahal zen goienetik askatuz gero helikoptero baten palak bezala biratuz mantso-mantso lurreratzen zen. Polita zen. Argazkiko astigar japoniarra, *Acer palmatum*, ari da fruituak hazten, polit askoak!

Beste helikoptero dotore batzuk ere bagenituen: sorgin-orratz edo mariburduntziak. Ur ondoko intsektu horiek, ordea, beste abaila batean ibiltzen dira. Intsektu azkarrenetakoak itxuraz, orduko ia ehun kilometroko abiadura harrapa omen dezakete! ■